


Ezpalak

JON TORNER

Translatines: Baiona-Buenos Aires



TRANSLATINES, jaialdi Franko-iberiar eta Latinoamerikarra, urriaren 15etik 24ra bitartean egingo da Baionan, Biarritzen, Angelun eta Bokalen. Argentinako antzerki konpainiak izango dira aurtengo edizioeko protagonistak. E.García Wehbi, S. Mercurio, E. Pavlovsky, R. Spregelburd, C. Tolcachir, D. Veronese eta F. León antzerkigileen obrak

izango dira ikusgai biurteko bilakatu den jaialdian. Egitarau osoa webgune honetan kontsulta dezakezue: www.theatre-des-chimeres.com/festival.html.

Euskadi Sariko finalista izateari ezetz esan dio Iñigo Aranbarrik

IÑIGO ARANBARRI idazle azkoitiarrak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eskutitza jaso zuen duela bi aste, *Zulo bat uretan* eleberriatik Euskadi Literatura Sariko finalista zela azalduz. Idazleak, ordea, finalisten zerrendatik ateratzeko eskatu du. 2007an plaza-ratutako *Utikan Euskadi Sariak* manifestuaren sinatzaileetako bat da Aranbarri. Manifestuak dio "sarion helburua ez dela literatur kalitatearen gaineko ebazpen zintzoa ematea", eta iradokitzen du helburua "egungo aginteari otzana zaion jardun literarioa sortzea" dela. Irregularitasunak ere salatu zituzten manifestua sinatu zuten idazleek. Manifestu osoa eta sinatzaileak: www.utikan.com.

Artelekuko koordinatzaile postua kentzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Kepa Landaren kontratua bertan behera utzi du. Gainera, Aldundiak adierazi duenez, krisi ekonomikoa dela-eta, Donostiako kultur guneko ekitaldi kopurua murriztuko dute.

Bide Ertzean taldeak *Leidor Sessions* zuzeneko disko eta DVDA kaleratu du. Tolosan eskainitako kontzertuko irudiez gain, Gorka Urbizu, Kirmen Uribe, Kaki Arkarazo edo Iñigo Aranbarriren testigantzak ere bildu dituzte DVDan. Hilaren 23an proiektatuko dute estreinakoz DVDA, Leidor aretoan bertan, eta azaroan ekingo diote diskoa aurkezteko kontzertu birari.

● **Xavier Silveira bertsolariak *Garan*:** «Txapelketaren aurkezpenean bertso munduko bi pertsona zeuden antolakuntzarako diru gehien ematen duten erakundeen bost ordezkari inguratutik. Bizkaiko Foru Aldundia, Vital Kutxa, Kutxa, BBK eta Euskalteleko ordezkariak. Denak politikariak (...) Uste dut ez dugula asmatu, ez dugula asmatzen. Hauek ez dute dirua dohainik ematen, ez eta diru truk ere, enpresa pribatuek egingo luketen bezala».

● **Eta Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko lehen-dakariaren erantzuna, Bertsolari Txapelketaren aurkezpen ekitaldian:** «Gu elkarte xume bat gara. 2.400 bazkide gara eta musu trukeko lanari esker bizirauten ari gara. Baina erabakia gurea da, inork ez diezagula bidea markatu. Babesleen bila, gu geu joan gara, ez dira guregana etorri. Eta babes osoa eskainiko diegu».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Lehen pausoa

Zorion perfektua. Zuzendaria: Jabi Elortegi. Aktoreak: Anne Igartiburu, Aia Kruse, Alberto Berzal. Euskal Herria. 90 minutu.

Hau irakurtzen duzunerako *Zorion perfektuak* aurreneko astea pasea izango du Euskal Herriko zinema aretoetan. Guk, kazetari pribilegiatuok, lehenago ikusi ahal izan genuen, Donostiako Zinemaldian. Eta, buelta gehiegi eman gabe esateko, azken urteetan euskaraz egin den film onena iruditu zitzaidan. Komediatik ateratzen den film bat, azkenean; kontakizun lineala puskatzera ausartzen den zuzendari bat.



“Ez da gehiegi” esan dit irakurle batek. “Baina bada zerbait” erantzun diot. *Zorion perfektuak* ez ditu ikusle zorrotzenak aseko agian, baina badu balio erantsia ematen dion ezaugarri bat: euskal gatazka ardatz duen filma izanda, euskarazko nobela batean oinarrituta dagoela, Anjel Lertxundirena, kasu honetan.

“Nobela batean oinarrituta egoteak ez du ezer ziurtatzen” saltatu du zuetako batek; besteak bazterretik: “Egokitzapen kaskar assssko zegok hortik txo; gehienak!”; eta nik baietz, mundu guztia ez dela Richard Brooks bezain ona arte horretan... Baietz, baietz, baina... “baina”. Iruditzen zaidalako, euskal literaturak dituen altxorren artean, gatazka islatzeko modua dela distiratsuenetako bat. Ikuspuntu ugari, tradizio luze samarra, azken urteetako ugaritzea... Irakurlea ere beste gai batzuekin baino exigenteagoa delako, ziurrenik: hurbiletik bizi du, ezagutzen ditu egoeraren erpinak, ezin diozu erbia esan eta katua eman.

Baina *Zorion perfektua* pantailara iritsi den arte, istorio horiek guztiak liburuetan geratzen ziren –salbuespenak albuespen–. Aldiz, azken urteetan euskal gatazka pantailan agertu bada, film espainiar propagandistiko eta manikeo samarretan baino ez da izan –*El lobo*, *Todos estamos invitados* edo *El viaje de Arian* etortzen zaizkit kolpean–. Ekoizpen horiek ez dute lortu gutxieneko sinesgarritasuna duen istorio bat kontatzea. Behar bada, ez zutelako asmorik ere. Elortegiren filmak bai. Eta eskertzen da, behingoagatik, ezker abertzalearen 90 minutuko karikaturarik ez ikustea, pelikulako protagonistak, zuzenean edo zeharka, ETArek biktimak izan arren.

Euskal zinemak, film honetan bezala literaturari gehixeago erreparatzen badio, agian bide interesgarria zabalduko da. Istorioak idatzita daude, nork egokituko zain. Eta ikusleek, nik uste, eskertuko dute gatazkaren ñabardurak pantailan ikustea, beste leku batzuetan ikusiko ez dituztenez. ■

gaztelupeko
HOTSAK

Errebat 23
28300 SCHALLUZE
Tel: +34 943 703014
Fax: +34 943 790129
guztelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com

WWW.HOTSAK.COM

BIDE ERTZEAN
Lektor Sessions

KEMEN LERTXUNDI
Begi berriak atzo gaueko irudieraz

UEK
U10

FLAKUTT
Electroflak+Uit

JIMMY ARRABIT TRIO
Jimmy Arrabit Trio